

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LOURDES OÑEDERRAREN  
ELEBERRIGINTZA ETA GENERO  
IKUSPEGIA

Gradu Amaierako Lana

Maria Mateo Baranguan

2017-2018 ikasturtea

Tutorea: Mikel Ayerbe Sudupe

Gradua: Euskal Ikasketetako Gradua

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila

# AURKIBIDEA

0.	Azterlanaren azalpena eta helburu orokorrak .....	3
1.	Euskal literatura, emakumeak eta genero ikuspegia .....	5
1.1.	Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera narratiba garaikidean .....	7
1.1.1.	Memoria eta modus autobiografikoa .....	8
1.1.2.	Genero indarkeria.....	9
1.1.3.	Amatasunaren gaineko diskurtsoak.....	9
1.1.4.	Emakumea eta nazioa.....	10
1.1.5.	Sexua eta generoaren berridazketa: polizia eleberrien kasua.....	10
2.	Lourdes Oñederraren eleberrigintza .....	11
2.1.	<i>Eta emakumeari sugeak esan zion</i> .....	11
2.1.1.	Teresa: modus autobiografikoa eta memoria .....	12
2.1.2.	Teresa eta amatasuna.....	14
2.1.3.	Teresa eta nazioa .....	15
2.1.4.	Teresa eta hizkuntza.....	16
2.2.	<i>Intemperies. Babes bila</i> .....	17
2.2.1.	Luzia eta modus autobiografikoa eta memoria .....	18
2.2.2.	Luzia eta amatasuna .....	19
2.2.3.	Luzia eta nazioa.....	21
2.2.4.	Luzia eta hizkuntza .....	21
2.3.	Teresa eta Luziaren arteko antzekotasunak .....	22
3.	Ondorioak .....	26
4.	Bibliografia .....	29

## 0. Azterlanaren azalpena eta helburu orokorrak

Gradu Amaierako Lan honen helburua Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) eta *Intemperies. Babes bila* (2013) eleberriak genero perspektiba batetik aztertzea da, eta bien arteko irakurketa konparatua egitea. Amaieran, azterketetatik ateratako zenbait ondorio azalduko dira.

Horretarako, lehenik eta behin emakumeek idatziriko euskal literaturaren gaineko sarrera bat aurkeztuko dugu, aurretik gai hau jorratu duten lanen inguruko berrikuspen labur bat eginez. Sarreraren ostean bi eleberriak genero perspektiba batetik aztertu ahal izateko oinarri izan dugun Lasarteren *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* (2011) tesiaren ekarpen nagusiak azalduko ditugu, lan honen helburuak eta nondik norakoak zehazte aldera. Horrela, literaturan emakume protagonista berriaren eraikuntzan gailentzen diren bost aztergaien aurkezpena egingo da: memoria eta modus autobiografikoa, genero indarkeria, amatasunaren gaineko diskurtsoak, emakumea eta nazioa eta sexua eta generoaren berridazketa: polizia eleberrien kasua dutena. Hauen artean batzuk ondoren landuko diren bi eleberrien azterketan oinarri izango direnez gero, ezinbestekoa da bakoitzaren funtzioa labur bada ere zehaztea.

Ondoren *Eta emakumeari sugeak esan zion* eleberriaren azterketari helduko diogu, lau ikerlerro oinarri izanik. Ikerlerro horietatik hiru aurretik azaldukoak izango dira: memoria eta modus autobiografikoa, amatasunaren gaineko diskurtsoak eta emakumea eta nazioa, amatasunaren aztergaia gai zentrala izango delarik. Gainera, Oñederraren eleberrigintzan nabarmentzekoa den hizkuntzaren erabilera ere kontuan izango dugu. Ikerketa aurrera eramateko, halaber, eleberri honen gainean burutu diren bestelako autoreen ekarpenak ere aintzat izango ditugu. Jarraian *Intemperies. Babes bila* eleberriaren azterketa egingo dugu, aurreko azterketak landutako ikerlerro berak jarraituz.

Eleberriak banaka aztertu ondoren, bi eleberriek eta bi nobelen emakume protagonistek partekatzen dituzten aztergaien antzekotasunei helduko diegu. Horien artean Lasartek azalduko emakume berriaren irudia sortzeko garrantzitsuak diren memoria eta modus autobiografikoaren erabilera, amatasunaren gaineko diskurtsoa edota nazioaren gaia gailenduko dira; eta baita hizkuntzaren erabilerak bi eleberrietan bereganatzen duen garrantzia ere.

**Hitz gakoak:** Gema Lasarte, Lourdes Oñederra, *Eta emakumeari sugeak esan zion, Intemperies.*

## 1. Euskal literatura, emakumeak eta genero ikuspegia

Euskal emakumeek ekoitziriko literaturaren gaia ez da berriki arte sakonki landua izan. Gaia landu duten aurrekarien artean, Olaziregik *Intimismoaz haraindi* lanean “ahantzura kritiko tamalgarri baten aurrean” ez ote gauden planteatzen du (1999: 16). Bertan, Kritika Feministaz hainbat kontsiderazio ezartzearekin batera, euskal idazleen artean Urretabizkaia eta Landaren lanak goraipatu ditu. Euskal emakume idazleei buruzko erreferentzia urriak salatzen ditu, eta bere iritzia frogatzen duen Linda Whitek euskal emakume idazleez egindako lehen doktorego tesia aipatzen du, zeinetan frogatu zuen uste izan diren baino euskal emakume idazle gehiago izan direla.

Halere, J. M. Torrealdai bere *Euskal Kultura Gaur* (1997) liburuan biltzen duenez “emakume idazleen portzentaia % 10,6 soilik izango litzateke” (ibid.: 16) eta orduz geroztik portzentaia hori hazi bada ere, ez dirudi aldaketa aski nabarmenik dagoenik. Azurmendik (2014), adibidez, “Axola al du kopuruak?” artikuluan %15-16ko portzentaia zehaztu zuen azken aldiko emakume idazleei dagokionez. Egon diren eta egun ere dauden emakume idazleen eta, oro har, artearen esparruan emakumeen urritasunaren arrazoiak Freixasek (2000) hiru hipotesi plazaratzen ditu: emakumeek artearen lanbidean jarduteko ez dute ez hezkuntza ez askatasunik izan; gizonezkoek izpiritu obrak lantzen dituzten bitartean emakumezkoek ugaltzeko ardura izana; eta artearen baitako zenbait mekanismok emakumeak bere horretan baztertu izana.

Amaia Alvarezek (2005) literaturtasuna gizonezkoekin lotu dela gogorarazten du, haiena izan baita idazteko eskubidea eta betebeharra historikoki, eta historian zehar ausartu diren emakumeak marjinetan geratu baitira. Honela dio Alvarezek: “historian zehar ausartu diren emakumeak marjinetan geratu dira, ‘Bestearen’ rola eduki dute, ‘femenino’ etiketa jaso dute” (2005: 38).

Laura Mintegik salatzen duenez, “mendeetan zehar jasandako egoera batek, kolektibo zabal baten izaera baldintzatu du. Kosustantziala baino, edukazionala da eme-kondizioa, hezkuntzaren fruitu” (1987: 19). Idazleak ez du sinesten sexu-diferentzia dagoenik, baina desberdintasunak badaudela nabarmentzen du, eta hauek, “idiosinkrasian oinarritu orde, sozialki egin den hitzarekiko erabilpen desberdina kontutan harturik” egiten direla azaltzen du (ibid.: 19-20).

Gabilondok (2006) ere XX. mendeko euskal literaturaren historizazio berria eskaintzen digu, 1992tik aurrerako literatura postnazionala sailkatuz, horren kanonaren sorreran

emakume literatura jarritz, eta jada Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* (1979) eredu postnazional horren aitzindari izendatuz; “Euskal emakumeak proiektu nazionalistatik kanporatuak izan dira eta beraz, bide berriak esploratu behar izan dituzte beren ni-ak adierazteko proiektu nazionalistatik kanpora. Ondorioz, emakumezko idazleak izan dira lehenak subjektu ez-nazionalistatik adierazten” (Gabilondo 2006: 53). Bestetik, gizarte nazionalista gainditu eta narratibaren ahots indibidual eta pertsonala garatu duten idazleak dakartza, Itxaro Borda edota Lourdes Oñederra adibidez.

Euskal emakume idazleen ekimenen artean, esanguratsuak diren bi egitasmo ere aipatu behar dira: *Gutiziak* (2001) ipuin bilduma eta Ana Urkizaren *Zortzi unibertso zortzi idazle* (2006). Lehenak, emakume idazleen ikusgarritasuna lortzeko euskal emakumezko idazleen ipuinak batera eskaini zituen. Bigarrenak, aldiz, zortzi emakumezko euskal idazle elkarrizketatzen ditu, Urkizak dioenez “egungo euskal literaturaren kanonean sartzekoak diren emakumezko idazleak badaudela jakitera emateko, eta euskal literaturaren kanonen inguruan ezinegona sorrarazteko, ohikoak diren galderei ahotsa jarritz” (Urkiza 2006: 10). Egileak A. Urretabizkaia, M. Landa, A. Arkotxa, L. Mintegi, L. Oñederra, I. Borda, M. A. Meabe eta Y. Arrieta elkarrizketatzen ditu bere lanean.

Euskal emakumeek idatziriko literaturaren azkenaldiko azterketei dagokionez, Gema Lasarteren lana nabarmentzekoa da, kritika feministaren baliabideak eta metodologiak aplikatzen dituelako literaturaren kritika egiterako orduan. Lehenik, Lasartek *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera* (2010) tesia burutu zuen eta ondotik, *Feminist Agenda: euskal narratiba garaikidean* (2012) liburua moldatu zuen. Lan horietan, esparru anglosaxoian “Feminist Agenda” deiturikoa lekutuz, emakume idazleek kontamolde eta gai komunak errepikatzeko duten joerari erreparatzen dio, 1979tik 2009ra arte euskal emakume idazleek euren eleberrietan sortutako pertsonaia protagonista femeninoak aztertzea helburu izanik.

Bestetik, Lasartek eta Alvarezek zuzenduriko *Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan* (2012) lanean, besteak beste intimismoa, erotismoa, eta desira hitzek egindako ibilbideari begiratuta, gorputzaren gaineko ezagutza eta boterea askatasunez erabiltzen denetik euskal literatur sisteman sexua eta sexualitatea nola eman diren aztertzen du Alvarezek. Mari Luz Estebanek (2004) gaineratzen du, ekintza eta transformazio soziala zein indibiduala funtsezko prozesu korporalak kontsideratuak izan

behar direla, eta horiek bezala analizatuak. Horri loturik lan feministen ondorioak anitzak eta oso onuragarriak direla dio, ugalketa eta sexualitatearen arteko bereizketa eta erabakitzeke legitimazioa azpimarratuz.

### **1.1. Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera narratiba garaikidean**

Gure helburua ikuspuntu feminista batetik Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) eta *Intemperies. Babes bila* (2013) eleberrien azterketa egitea denez, Lasarteren *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* (2011) lana izango dugu oinarri. Jarraian, beraz, lan horren nondik norakoak zehaztea ezinbestekoa da.

Lasartek tesian emakume idazleek beren eleberrietan sorturiko emakume protagonistak aztertzea du helburu eta euskal literaturan sujeritu den emakume protagonista berriaren lekuko izan nahi du. Protagonista berri hauen eraikuntzan diren berritasunen gaineko hausnarketa egin du eta “pertsonaia femeninoa aztertzeko beste modu bat proposatu” du (Lasarte 2011: 12).

Azterketarako aukeratu duen garaia 1979-2009 artekoa da, sasoi honek modernitate ondoko aldi zabala eskaintzen baitu testu narratiboetako protagonistak lantzeko. Gainera, literaturaz gain, feminismoak garai horretan bizi izan dituen gorabehera esanguratsuak ere aipatzen ditu Lasartek. 1979ko hasiera data aukeratzearen arrazoia urte horretan aurrenekoz lehen literatur pertsonaia subjektu protagonista modernoa sortu izanari zor zaio: Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* eleberriko ama. Gainera, ama subjektu horrek garai hartako emakumeen askapen mugimenduen kezka eta esperientziak irudikatzen dituela gaineratzen du hautaketa arrazoitzen duenean.

Lasartek azterketa aurrera eramateko pertsonaiaren profila eta garapena hobe ziurtatuko duten 27 euskal eleberriren aldeko hautua egiten du eta pertsonaia femeninoak alderdi askotatik analizatzen ditu:

Narratologiak proposaturiko pertsonaien funtzioen deskripzioak, karakterizazioak, izenen balio semantikoa eta ahots eta fokalizazioen erabilpena. Era berean, kritika feministak proposaturiko hainbat ikuskera inskribatu dira emakume egileek pertsonaia femenino berria nola landu duten aztertu ahal izateko (kritika feministak emakume berritza hartzen duena esan nahi da). Halaber, kritika feministak aipatzen dituen pertsonaien estereotipoak, berridazketak, berrirakurketak edota iraulketak kontuan izan dira oso (ibid.: 23-24).

Halaber, tesia bideratzeko eta corpusaren azterketa garatzeko bost azterbide zehazten ditu: memoria eta modus autobiografikoa; genero indarkeria; amatasuna; emakume eta nazioa; eta sexua eta generoaren berridazketa. Gai horiek emakumetasunarekin hertsiki loturik dauden heinean, zuzenean eragiten diote azterketa literario feministari eta horregatik bilakatzen dira beharrezko. Jarraian, beraz, aztergai horietako bakoitza labur azalduko da.

### **1.1.1. Memoria eta modus autobiografikoa**

“Identidad silenciada y marginal” (Caballé *apud. ibid.:* 64) esaldiak ondo deskribatzen du memoriaren gainean Lasartek esaten duena, alegia, XX. mendean hasten den kontamolde honek mendeetako isiltasuna idatzira eramatera eta beren identitatea eraikitzaera bultzatuko dituela, eta egungo emakume idazleek ere hori jarraitzen dutela. Era berean, Dolores Ramosek *Feminismo plural. Palabra y memoria de las mujeres* liburua (1994) berera ekarriz, azpimarratzen du ez legokeela emakumearen historiarik hauen hitz propiorik eta memoriarik gabe. Caballéren hitzekin indartzen du ideia, identitatea oroimenean oinarritzen baita, eta hori dela eta, memoriak garrantzi handia hartzen du emakume hauen diskurtsoan.

Bestetik, modus autobiografikoari dagokionez, XX. mendean identitate bilaketari ekin zioten emakume idazleekin lotzen du Lasartek, 1960-1970eko hamarkadetan feminismoa indartzearekin batera gehiago loratu zen eginkizuna.

Euskal literaturan pertsonaia protagonista femeninoen modus autobiografikoaren erabilera XX. mendean garatuko litzateke, hots, idazleek Europako literatur joerari heldu zioten unean, aurreko garaian heldulekurik izan ez zuten gero. Beraz, gurean emakume idazleek aurretik emana zen maitasun eleberrien joerari ekin beharrean autobiografiari ekin zioten batik bat.

Kontamolde hau darabilten idazleek, idazmenaren bidez bizitza ordenatzea dute jomuga eta gogoetak, gutunak, eta konfesioak dira hau lantzeko teknika erabilienetakoak. Bestetik, niaren egitura funtzionaletako ardatzetako bat da memoria, honek pertsonaiari ahalbidetzen baitio bizi den denboratik bizi izan duenari begiratzea. Oroimenak iragana gaurkotzea eta orainaldian pertsonaiari nia aktiba dezan laguntzen dio.

Modus autobiografikoak erabiltzen duen argumentuari dagokionez, pertsonaia protagonista femeninoa erabili duten idazleek kontamolde hau baliatu dute emakumeen



esperientziak eta gogoetak jasotzeko, eta, bidenabar, bizitzaren esperientziatik nia eraikitzeko. Azkenik, Lasartek ni-tasunaren eraikuntza honetan emakumezkoek idatzietan izaten dituzten hainbat joera dakartza: gaiak, ispiluak, denbora, espazioa, gorputza eta estiloa.

### **1.1.2. Genero indarkeria**

Genero indarkeriaren kezka lantzen du, sexu biak bereizi eta emakumeak gizonen menpe egotera daramana, hain zuzen: “genero indarkeriak sexu arteko ezberdintasunak mantentzeko paradigmatari erantzuten dio. Botere ariketa bat da gizonetik mendekotasuna behin betirako ezartzeko” (Osborne; Bosch eta Ferrer; *apud.* ibid.: 103).

Lasartek gai hau bi modutan lantzen du: batetik, biolentzia ikusi ahal izateko narratologiaz baliatzen da, aukeraturiko eleberrien pertsonaiak aztertuz. Bestetik, indarkeriaren alderdi semantikoa neurtzeko indarkeria sinbolikoaren sorrera neurtu nahi izan du, ondoko gaiak banan-banan aztertuz: hizkuntza sexista, maitasun botereak, harreman konposaketak eta gorputzaren ikuskerak.

### **1.1.3. Amatasunaren gaineko diskurtsoak**

Amatasunaren gaineko diskurtsoari dagokionez, Lasartek hiru multzo bereizten ditu. Amatasunaren kontrako jarrerak lantzen dituzten emakumezko idazleak, amaren aldeko jarrerak jorratzen dituztenak eta ama-alaben arteko harremanetan zentratzen direnak.

Amatasunaren kontrako jarrerak lantzen dituzten corpuseko eleberrietako pertsonaia protagonista femeninoak garapen eta barru lanketa handiaren erakusgarri direla azpimarratzen du. Protagonista hauek euren artean jarrera desberdinak agertzen dituzte, baina denek euren erabakia jendartearekin silogismoan harturiko deliberamenduen ondorio dira. Honako atal honetan sartuko genuke lanean aztergai dugun *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) eleberria, gerora ikusiko dugun bezala.

Bestetik, amatasunaren alde onak dakartzaten eta amatasuna gorpuzten eta babesten duten eleberriak leudeke. Hauek amatasuna lantzen duten Lasarteren sailkapenean eleberrien corpusean gutxiengo lekua hartuko dute, leku gehiena amatasunaren kontrako jarrera lantzen duten eleberriak izanik.

Emakumeen arteko genealogiak eta ama-alaben arteko harremanak lantzen dituzten eleberrietan Chodoroveren hitzak hartuz, batetik “emakumeen arteko harremanak afektiboki gizonetzkoenak baino aberatsagoak” direla, eta bestetik, “emakumeak

harremanen bidez eraikitzen dutela identitatea; gizonezkoek, aldiz, harreman hauen ukapenean oinarritzen direla” ideiak gailentzen ditu (Chodorove *apud. ibid.*: 178).

#### **1.1.4. Emakumea eta nazioa**

Nazionalismoaren iruditerian emakumeari emandako lekua ikertzen du ondotik. Gure literaturi dagokionez, lehenik eta behin, Alcedok dioena berretsiz, ETako emakume militantea beste ikuspegi bat azaltzen hasten dela diosku: “La mujer exige una reconstrucción del género reclamando para sí lo que ha sido determinado en la definición tradicional del género masculino” (Alcedo *apud. ibid.*: 191). Bestetik, postnazionalismoak abertzaletasun ez-nazional batentzat tokia egiten du. Postnazionalismoak mugen ezabaketa lekarkeela dio Gabilondok, eta testuetan azaltzen diren ideologiak aztertzeke Gabilondok egiten dituen proposamenak kontuan hartzen ditu Lasartek aztergai honetan.

Honela, bada, nazioaren trataera edo ikuspegia lau multzotan bereizten du Lasartek. Lehenik eta behin nazioaren trataera modu esplizituan, hots, lehen mailan lantzen duten nobelak leudeke. Bigarrenik, nazioaren trataera modu implizituan lantzen dutenak, alegia, nazioaren gaia bigarren maila batean lantzen dutenak. Hirugarrenik, pertsonaia femenino protagonistak postnazionalismoarekin lotu dituztenak eta nazioa ordezkatzeko ez dutenak leudeke, eta azkenik, nazio edo lurraldetasunaren gaineko aipamenik ere egiten ez dutenak.

#### **1.1.5. Sexua eta generoaren berridazketa: polizia eleberrien kasua**

Azken atal honetan idazle bakarra (Itxaro Borda) eta pertsonaia protagonista bakarra (Amaia Ezpeldoi) aztertzen ditu Lasartek. Izan ere, euskal literaturan detektibeak sortzeko joera urria nabarmentzen du eta are gehiago emakumeen kasuan, euskal literaturan emakume detektibe bakarra sortu den heinean, “emakume idazleen eskasia eta pertsonaia femenino edota emakume detektibeen hutsunea” azpimarratuz (*ibid.*: 251). Gainera, euskal literaturaren barruan landu den detektibe lesbiar bakarra dela diosku Lasartek, euskal literaturan genero honi dagokionez hutsuneak are gehiago berretsiz.

## 2. Lourdes Oñederraren eleberrigintza

Lourdes Oñederra Donostian jaio zen 1958an, eta Filologia Hispanikoan lizentziatua, Euskal Filologian doktore, Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna eta euskaltzain osoa da. *Ehun metro* eleberraren epilogoia idatzi zuen eta *Ere, Oh Euskadi!, Hika, Argia, Bake Hitzak* eta *Erlea* aldizkarietan eta *Euskaldunon Egunkaria, Berria* eta *Noticias de Gipuzkoa egunkarietan* ere zutabegile aritu izan da. Eleberrigintzari dagokionez, *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999) izan zuen lehen eleberria, eta ondotik, 2013. urtean *Intemperies. Babes bila* kaleratu zuen. Horretaz gain, “Anderson anderearen gutizia” ipuina eman zuen argitara *Gutiziak* liburuan (2000) eta Patrick Süskind-en *Sommer jaunaren istorioa ere itzuli du euskarara*.

### 2.1. *Eta emakumeari sugeak esan zion*

*Eta emakumeari sugeak esan zion*<sup>1</sup> oso harrera ona izan duen eleberria da, bai publikoaren zein kritikaren aldetik. Halaber, lau sari jaso dituen lana dugu, horien artean 2000. urteko Euskadi Saria aipagarria da, sari hori irabazi zuen lehen emakumea baita. Era berean, eleberria gaztelera, ingelesa eta errusiera bezalako hizkuntzetara ere itzulia izan da.

Eleberri honetan 30-40 urte arteko erdibidean dagoen emakume bat, Teresa, dugu protagonista. Honek bere senarrarekin Donostiatik Vienara egingo du bidaia bere aspaldiko amorante izan zenaren etxera. Bidaia fisikoa bada ere, protagonistaren beldurrak, zalantzak, ezinegonak, sentitzen duen bakardadea eta bestelako emozioak biltzen dituen barne-bidaia izango da garrantzitsuena protagonistarengan. Bi gizonekin batera egongo da Vianan, baina bakarrik sentituko da. Teresaren barne-bidaia horren bilakaerak eramango du protagonista amaieran bere etorkizunari begirako erabaki ausarta hartzera: bere ordura arteko bizitza atzean utzi eta bide berri bati heltzeko erabakia.

Eleberriak planteatzen dituen gaiak direla eta, gizon eta emakumeen arteko amildegia nabarmendu dute Olaziregik eta Aldekoak. Era berean, “bakardadeaz, bilaketa ororen alferrikakotasunaz edo gure bizitzari zentzua ematen dioten istorio nahiz kontsignen ahultasuna” gaineratzen du Olaziregik (2002: 125). Horri lotuta, Teresak bere buruan sortu dituen identitate mugak eta kontraesanak aipatzen ditu Retolazak (2007), eta

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera, nobela hau aipatzeko *EESEZ* siglak erabiliko dira.

hauetaz jabetzean Teresak bidaian zehar horiek askatzeko egingo duen ahalegina azpimarratzen du. Barnekotasun hori irudikatzeko baliabide desberdinak darabiltza Oñederrak.

Bidaia horien subjektu nagusia Teresa da, eta objektutzat bere bizitzaren inguruan gogoeta egitea du, gizarteak ezarritako hainbat egiteren inguruan hausnartzea. Fokuaren etengabeko aldaketak nahiz kronologia lineala apurtzeak Teresaren egonezina irudikatzen dute, eta naturaren zikloaren, gorputzaren zikloaren, aurkako borroka ere adierazten. Teknika hauek guztiek ere Teresa bere buruan murgildua, baina era berean helburutzat duen bidaiarekiko distantzia zedarrizera daramate (Lasarte 2011: 166).

### **2.1.1. Teresa: modus autobiografikoa eta memoria**

Modus autobiografikoa darabil Teresak eleberrian, bigarren pertsonaren ahots-erabilera aukeratuz horretarako. Ahots kudeaketa horren bidez Teresak egiten dituen bidaia fisiko eta psikologikoaren bilakaera azaltzeko gaitasuna lortzen du. Bidaia fisikoaren subjektu den Teresak, *Zu*-aren bitartez objektua litzatekeen bizitzaren gogoeta egiten du. Pertsona erabilera horrekin, Teresak sentitzen dituen emozioei hobe heltzea lortzen du eta autoreak, aldi berean, irakurlearekiko gertutasuna ere eskuratzen du, azken hau Teresaren gogoan murgiltzera eta bere barruko emozioak hobe ulertzera eramanez. Beste pertsonaia batzuek sentitzen dutena ere ezagutarazten da, eta beraz, autoreak berak dioenez narratzaile hori ez dago erabat Teresarengan mugaturik:

Narratzailea ez dago erabat Teresarengan. Nabaria da Teresa kontatzen ari ez denean, Luis edo Andrés baizik... baina narratzaileak, Teresari dagokion zatietan ere Zu horrek (Teresak) ikusten ez dituen gauzak ikusten ditu. Beste batzuetan erabat murgiltzen da Teresarengan. Kanporantz eta barrurantz dabilen foku-moduko bat da (Urkiza 2006: 257).

Hala ere, Olaziregik dioskun bezala “pertsonaia batetik bestera etengabe mugituz doan narrazio-fokoak ere harengana eramaten gaitu beti” (Olaziregi 2000).

Modus autobiografikoak, bidenabar, lagundu egiten dio Teresari bere identitatea eraikitzen eleberrian zehar, eta memoria lagun, bere oroitzapenak behatzen ditu etengabe: “Memoria, oroitzea, hori da bizitza, biziera bakarra, bata bestearengan izan dezakeen lekua. Maitasuna ez al da memorian leku on bat, leku samur bat, beste bati tarte bat irekitzea” (84)<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Lan honetan erabiltzen diren aipu guztiak *EESEZ* liburuaren 2000. urteko argitalpenekoak dira.

Denborari dagokionez, eleberria urtaroetan egituratzen da. Horrela, lau kapituluak urtaro bakoitzari lotuta daude, negutik udara bitarteko aldia kontatuz. Era berean, kapitulu bakoitzeko urtaroari dagokion izenburua hainbat hizkuntzatan zehazten da, eta gainera, urtaroei buruzko zenbait aipamen tartekatzen dira eleberrian, bereziki abestien aipamenen bidez. Esaterako, Vivaldiren *The four seasons* edo F. de André-ren kantuan, edota Jasper Johns margolariaren *The four seasons* lanaren aipamenarekin besteak beste.

Nabarmentzekoa da eleberriaren hasieratik bidaiaren amaiera nola izango den kontatzen digula Teresak prolepsi baten bidez: “Orain abioiz ari zara hiri honetara sartzen, baina orduan trenez irtengo zara. Senarrarekin zatoz, baina bakarrik joango zara. Ez dakizu orain irekitzen ari zaren parentesia ez dela berez itxiko” (17). Alde batetik, irakurlea ohartarazten du eleberriaren amaieraz, eta bestetik, Teresak bere buruari hitz egiten dio, bidaiara amaitzean bakarrik alde egingo duela esaten dio, baina berak, (une horretako Teresak) oraindik ez daki. Teresak momentuko gertaerak kontatzen ditu gertatzen diren momentuan, orainaldian, baina maiz, bere barnekotasuna eta sentimenduak oroitzapenen bidez ematen dizkigu, iraganeko momentuetara jotzen duelarik. Teresak bakardade betean sentitzen du bere burua, eta momentuan ikusten edo sentitzen dituen gauza askok aitzakia ematen diote biziago sentitzen duen gaztaro horretara ihes egiteko. Beraz, iraganeko denbora ere usu darabil autoreak.

Bestetik, heriotzaren gaia behin baino gehiagotan dator kio burura protagonistari. Badaki noizbait denbora amaituko zaiola berari ere, eta bizitza planteatzean presente du heriotzaren gaia. Haurtzaroa, gaztetasuna, zahartzen joateko garaia eta heriotza, denak ditu gogoan Teresak.

Espazioari dagokionez, eleberria Vienako hirian kokatzen da, protagonistak Donostiatik bertara egindako bidaiari. Espazio nagusi horretaz gain, Lasartek espazioari loturik eskaintzen digun leihorearen irudia gainera daiteke, Teresa hainbatetan leihotik begira hausnarketan agertzen baita: “leioa begirada berri bat izan dela esan daiteke, begirada estrategiko bat, begira dagoenak ikusia izan gabe, begiratu ahal izateko” (Lasarte 2011: 77).

Aspaldian ez zara egon leihotik kalera begira. Ez, urteetan ez zara egon begira, besterik gabe begira. Hori da etena. Oroimenaren puntu galduren batean hasi zen ezereza. Leihotik kalera

begira egon gabeko denbora guztia zulo bat da. Ezereza. Eta ezereza haustea da berriz ere leihotik kalera begira jartzea, udazkenaren lehen hostoak erortzen hasiak direnean (38).

Espazio fisiko horiez gain, herriak, erbesteak eta espazio utopikoak ere garrantzitsuak izango dira protagonistarentzat, baina hauen gainean gehiago sakonduko da ‘Teresa eta Nazioa’ atalean.

### **2.1.2. Teresa eta amatasuna**

Izenburutik bertatik egiten dio eleberriak Genesiari erreferentzia. Olaziregik (2002) dioen bezala, Evak Jainkoak bezala jakinduria osoa bereganatzeko jan zuen sagarra, eta orduz geroztik kondentuta dago emakumea errua eta zigorrera, eta gizonetik mendekotasunean bizitzera; edota Aldekoak ere eransten duen modura, “bizitzak, urratsez urrats nola ihes egiten dion ikustera” (2004: 423).

Lasartek (2011), ordea, Teresak ama izateari uko egiten diolako ideia harturik, beste irakurketa bat iradokitzen du; bere bizitza zein gorputza libreki artezteko aldarria. Retolazak honela ebazten du kontua: “Teresa ama ez denez, diskurtso kristauarekiko duen harremana sexualitateak bideratzen du. Eta bere kezkek, zalantzak eta ezinegonak sexualitatearen bidetik datoz (...) sexu harremanetan ere inkomunikaziora zigorturik ikusten du bere burua. Bakardadera zigorturik” (Retolaza 2007: 263). Ideia horien oinarria eleberriko pasarte honetan topa dezakegu:

Evak ezin izan zuen orduz geroztik Adanen anima ukitu. Larrua bai, larrua eta txistua. Adanen ilea. Adanen zakila. Baina ez zion inoiz gehiago anima ukitu eta Eva, Adanekin zegoenean ere, maitasuna egiten edo erditzen ari zela ere, Eva bakarrik sentitzen zen. Agian bai, agian hori izan da zigorra, sagar debekatua jateagatik emandako kondena (27)

Beraz, Adan eta Eva oinarri harturik gizon eta emakumeen arteko distantziak, urruntasunaz dihardu, eta Evak errua sentitzera daraman kondenez; izan ere, eleberrian zehar, Teresa bere senarra eta bere maitale izan zenarekin dago, baina bakardade batean murgilduta sentitzen du bere burua, haiengandik, gizonengandik urrun. Bestetik, emakumeak gizartean sentitzen duen erruaren sentimendua islatzen du Teresak, emakume izateagatik gaztetatik errudun sentitzeko zama. Eleberriaren amaieran alde egiteko erabakiarekin batera arinduko du zama hori.

Teresak maiz hitz egiten du bere gorputzaren aldaketaz alderdi fisikoari buruz, edota hilekoa hizpide izaten duenean, adinaren eraldaketak adierazteko ez ezik, amatasunaren gaiari lotzeko ere badarabilena. Ama ez izatea erabaki zuen, eta haurdunaldiak eteteko

pilulak hartu ere bai. Haatik, erabaki hori hartzerakoan izan zituen zalantzen jakitun egiten gaitu, amatasunak tristura arinduko ote dion zalantza eginaz. Baina badaki erabakitzeke ordua heltzen ari zaiola; bere gorputzak abisua ematen dio, eta azkenik, ezetz erabakitzen du. Bere gorputzaren bi irudi ematen ditu Teresak, bata amatasunaren hausnarketan, umeak sortzeari loturik dagoen gorputza, eta bestetik, harremanak kudeatzeko gorputza.

Azken finean, bizitzaren gaineko hausnarketa sakona da eleberria, eta ama izatea edo ez izatea erabaki garrantzitsua da, eta protagonistari erabakitzeke ordua heltzen ari zaio, amatasunaren gaineko hausnarketak eleberri osoan txertatuz. Aipatzekoa da, hausnarketa horietako batean, amatasunak eskatzen duen denborari begirako gizon/emakumeen diferentzia: “Gizon batek beti du denbora, nahi duen denbora guztia aita izateko. Emakumeak ez” (162). Erabaki horren aurrean ikusten dute bere burua emakume askok eta zalantza horren eredu da Teresa: “Emakumearen kontzientzia ernaltzen du, amatasunari uko eginez eta bere bizitzari begirada bat emanez” (Lasarte 2012: 44).

Amatasunari loturik protagonistak bere ama eta amona aipatzen ditu tarteka; hiru belaunaldiak azaltzen dira beraz eleberrian. Hauen aipamena batez ere haurtzaroko goxotasuna oroitzeko darabil. Aitzitik, biekiko harremana ez da berdin atzematen. Amarekiko harremanak amonarekiko duena baino hotzagoa dirudi. Bata maite zuela eta besteari beldurra ziola aipatzen du eleberriko pasarte bateko oroitzapenean. Horrela, amona goxotasun handiagoz irudikatzen du, oso ondo moldatzen omen ziren eta amona harro zegoen Teresaz. Gainera, esanguratsua da bere bizitza planteatzen duenean amonak botatzen zion esaldi bat datorkiola burura; bere bizitzari etekina atera ziezaion esaten zionekoa. Honakoan, gizartean emakumearen egoeraren aldaketaz ohartzen den amona dela pentsa daiteke; emakume adindu bat ikus dezakegu, bere bilobak bere bizitzari etekina atera diezaion nahi duena, berak eskura izan ez zituen aukerak ikusten dituen Teresaren esku, eta probestu ditzan nahi du.

### **2.1.3. Teresa eta nazioa**

Oñederraren eleberriak emakume literatura ebento bihurtu izana eragin duela dio Gabilondok, izan ere, euskal literatura nazionalaren krisiaren aldarrikatzaile den eleberria ez ezik, berritzailea ere badelako. “Oñederraren eleberria ez da gertakari soilik euskal emakume batek idatzi duelako –emakume protagonista erdigune duelarik–

baizik eta emakume bat izan delako lehena klase baten krisiaren errealtatea eta utopia-beharra azpimarratzen” (Gabilondo 2006: 301).

Gabilondok diosku eleberriak gizonekiko harremanetan kokatzen duela herri/erbeste/utopia errepresentazioa. Eleberriko protagonista den Teresa Euskal Herritik atzerrira abiatuko da, atzean utziz aberria. Aberria Andrések irudikatuko du, bere senarra denak, eta sexuaren eta nazionalismoaren arteko harremana sortuko du Teresak:

Bueltatzeko gogoia ere sortuko zaizu onenean. Herrira itzultzeko desioa. Herrimina. Ez dakizu. Gustatuko litzaizuke noizbait berriz hori sentitzea. Berriz maitemintzea ere bai. Posible ote da berriz maitemintzea. Posibleago, apika, berriz herrimina sentitzea (17-18).

Teresaren erbestea, aldiz, aspaldiko maitalea izango da, Luis, atzerrian bizi den euskalduna. Erbeste honetan nolabaiteko irtenbidea topatu nahi du Teresak, baina hasieratik esaten digu ez duela erdietsiko: “Nekatuegia, konturatzeko atzerrira etortzeak ez zaituela kanpora aterako, zure barrenetik kanpora” (18).

Amaitzeko, utopia Italiak irudikatuko luke eta hirugarren maitale batek definituko du espazio hau. Bertan, Italian izan zuen lehen elkartzeko sexuala. Baina orain ez du utopia horretan Andoni kokatzen, bere lehen amorante hura, Italiako bakardadean kokatzen du utopia.

Bestetik, atzerriarekin lehen “kontaktua” edo dakar gogora; berarentzat txikitatzen atzerria zen Hegoaldeko Frantzia aipatzen du Teresak bere gogoetan. Euskal Herria izanda hain desberdina zitzaiona, atzerria zitzaiona. Bertan ezagutu zituen gainera aurreneko aldiz protagonistak ikurrinak: “Ikurrinak zeuden kalean. Zuk ikusi zenituen lehen ikurrinak” (141).

#### **2.1.4. Teresa eta hizkuntza**

Hizkuntzaren trataera berezia da eleberrian zehar. Horrela, euskaraz gain, beste hainbat hizkuntza baliatzen ditu narratzaileak: alemana, katalana, italiera, frantsesa etab. Adibiderik argiena, eleberriaren jarraipena adierazteko darabiltzan hizkuntza ugaritako urtaroen izendapenak dira: “Hitzaren aldeko aldarrikapena egiten da, nahiz eta ustezko heldulekua dela onartu” (Retolaza 2007: 260).

Bestetik, Teresak maiz hitz bat baino gehiago darabiltza ideiak adierazteko eta elkarrekin kateatzen ditu: “Maitasuna, amodioa. Elkarren segidan ez dirudi gauza bera



esan nahi dutenik. Esan nahia, esannahia, esannahia” (28). Halako formulazioekin hizkuntzaren mugak ematen dira aditzera eta ulerkortasuna bideratzeko hitzek izan dezaketen hutsaltasuna adierazi nahi dela ondoriozta daiteke.

Eleberriko Teresa idazlea dela esaten zaigu, kazetaria dela aditzera emanez, alegia, hizkuntzaren antolaketarekin, adierazpenarekin... zuzeneko harremana duena. Ideia honek hizkuntzarekiko fijasioa islatu eta indartzen du. Aitzitik, Vienan dagoela ezin idatzirik dabil, barne-krisialdia idazketan ere azaleratzen delarik. Teresak hizkuntzarekin izan zuen lehenengo gerturatzearen berri ematen du, eta hizkuntza beraren ahalmenaz, Olaziregik azaltzen duen bezala:

Txikitako Teresari Alegiako hiletetan izan zuen lehenengo ezusteak hizkuntzak errealitatearekin duen etena erakutsi bazion, heldutasuneko Teresak badaki etengabe traizio egiten dioten hitz horietan (maitasuna, adiskidetasuna, ilusioak...) babes aurkitzera kondenatuta dagoela (Olaziregi 2000).

Eleberriko estiloari dagokionez ere, hizkera neurtua nabarmentzen da, bereziki, esaldi motz eta lotuen aldeko hautua gailentzen den heinean. Esanahi eta adierazkortasun zehatzaren bilaketa trebeki azaleratzen da protagonistaren ezkutuko emozio sakonak islatzerako orduan.

## ***2.2. Intemperies. Babes bila***

*Intemperies* Oñederraren bigarren eleberria dugu, 2013an argitaratua. 2015ean idazleak berak gaztelaniara itzulia izan zen.

Luzia da protagonista, 50 urteko hizkuntzalari, Madrila doana Eva izeneko afasiadun neskaxa baten hizkuntza zailtasuna aztertzeraz. Bertan, Víctor izeneko neurologo alarguna ezagutuko du eta elkarren arteko harremana haziz joango da. Víctorrekin ez ezik, Evarekin ere sentimendu edo gertutasun handiagoa sentitzen hasiko da protagonista. Luziak, Donostia-Madril etengabeko bidaietan Evaren azterketaren berriak kontatzen baditu ere, pertsonaia nagusiaren barnekotasuna izango da interesgarriena.

Eleberriak lantzen dituen gaien artean, bakardadearen aurrean pertsonaiek azaltzen duten hutsaltasuna eta besteen beharra dugu. Hiru pertsonaia nagusiak, Luziak, Víctorrek eta Evak, ondoan zuten pertsona galdu dute: Luziak senarra dibortzioan; Víctorrek emaztea minbiziaren ondorioz; eta Evak gurasoak leherketa batean. Gabezia horrek sentiarazten dien bakardadeak besteekiko nolabaiteko beharra sentitzera

eramango ditu. Sentimendu hori agerikoa da eleberraren hasieran bertatik, Luzia agertzen baitzaigu Víctorren zain, Eguberri gaua bakarrik ez pasatzeko gonbidatu baitu protagonistak neurologoa. Edo are lehenago, azpтитulua bera, *Intemperies. Babes bila* ideia horren argigarri delarik. Bakardadea, protagonista izutzen duen eta aldi berean beharrezkoa duen bakardadea da: “bakardadearen mamuak beldurtzen du, baina ez du galdu nahi pixkanaka berea bihurtzen ari den espazioa, arnasa hartzeko balio dio eta bere buruarekin igarotzen duen denboraz bazkatzen du” (77)<sup>3</sup>. Hamar urtez ezkondata egon ondotik, beldur ematen dio bakarrik egoteak, baina Martin senar-ohiak kentzen zion askatasun hori berreskuratu nahi du aldi berean.

Honi loturik, protagonisten emozioak, grinak, zalantzak, beldurrak eta hauek esateko (edo ez esateko) zailtasuna eta muga edo ezintasuna daude; alde batetik Luzia, bere barruak gordetzen dituen sentipenak hausnarketen bidez biluzten dizkiguna, eta bestetik Eva, askotariko emozioak eta beldur handia sentituko dituen, baina hitzen bitartez horiek adierazteko gai ez dena. Luziak Eva ezagutu arte Taka bere txakurrarekin egin dio aurre bakardade horri. Gainera, Luziak bakardadeaz gogoeta egiten duenean, azaltzen du bakardadea ez dela inguruan inor ez izatea, beti dugulako norbait inguruan; baizik eta norbera bezalako beste inor ez egotea, edo dauden gutxi horiengandik urrun egoteak dakarrela bakardadea.

### **2.2.1. Luzia eta modus autobiografikoa eta memoria**

Eleberrri honetan ere modus autobiografikoa darabil Oñederrak. Narratzaileak 3. pertsonaren erabilera darabil, baina ikuspuntua aldatzen da; nobelaren hasieran Luziarengan fokatzen da nagusiki, eta amaieran, ostera, Víctorrengan. Gainera narratzailea orojakilea izango da, eta batez ere protagonistaren barnekotasuna ezagutzera emango digu eleberrri osoan zehar. Memoria ere badarabil narratzaileak; batez ere Martin senar ohia izandakoarekin oroitzapenak baliatuko ditu bakardadeaz, gizonez edota amatasunaz hausnarketa egiteko. Kontamolde hauek protagonistak jasaten duen barne-bilakaera ezagutzen laguntzen digute.

Garrantzia handia hartzen du memoria eta modus autobiografikoaren erabilerak eleberrian, izan ere, honek ahalbidetzen du protagonistaren barruko emozioak sakontasunez ezagutzeko aukera, eta hain zuzen ere Luziaren barnekotasun hori da

---

<sup>3</sup> Lan honetako aipuak *Intemperies. Babes bila* eleberraren 2013ko lehen argitalpenekoak dira.

inportanteena eleberrian. Dena den, protagonistaren barnekotasuna Evarenarekin lotu beharko litzateke, bien artean harreman berezia sortuko baita, eta Luzia, bere emozioak biluzteaz gain, Evarenak asmatzen eta deskribatzen ere saiatuko baita, Evak ez duen ahotsa izan nahian edo.

Denborari dagokionez, Egañak (2013) dioen bezala, “Denbora da narrazioa egituratzen duen elementua, eleberriari ordena eta batasuna ematen diona”. Eleberriaren hasiera eta amaiera egun berean kokatzen dira, Eguberri gauean. Eleberria hiru zati nagusitan dago egituratua, lehena eta hirugarrena abenduaren 24ko egunean gertatzen dira eta bigarren zatia, luzeena, data hori arteko (urtebete eta lau hilabetetako) aldia kontatzen duena, Luzia Madrilerara joaten hasten denetik bertan zuen lanaren amaiera heltzen den arte.

Heriotzaren gaiaren gainean azkenaldian gehiago hausnartzen duela berresten du protagonistak. Bizitzak muga bat duela jakitun da eta maiz hausnartzen du heriotzaren inguruan, heriotza ulertzeko zailtasunaz eta aldi beran heriotzaren ziurtasunaz.

Bestetik, espazioari erreparatuz gero, Madril eta Donostian kokatzen da eleberria, etengabeko bidaiak egiten baititu protagonistak hiri batetik bestera. Etengabeko mugimenduan dagoen emakumea da eta trenean bidaiatzen dagoela ere agertuko da Luzia bere hausnarketak plazaratuz.

### **2.2.2. Luzia eta amatasuna**

Esan bezala, Luzia 50 urteko emakumea dugu, ama izateari uko egin diona, baina maiz amatasunari loturiko hausnarketak eta zalantzak dakartzana. Bestetik, amatasuna vs. sexua bereizten ditu Luziak. Bien gaineko hausnarketak dakartzkigu, eta gaztarotik sexua dibertigarriago zaiola ere erabakitzen du. Hala ere, aipatzekoa da amatasunaren indarrak ere hausnartzen duela: “amatasunaren indarrak. Presentzia edo absentzia indar horren formak dira” (72).

Aitzitik, amatasunari ezetza eman badio ere, Eva ezagutuko du, eta Eva maitatzen hasiko da. Eva bakarrik eta babesgabe dagoen haurra da, beldurtuta dagoena, eta beldur hori dela eta ezin du hitzik egin. Luzia eta Evaren arteko harremana handituz joan ahala, ama-alabaren harremanen xalotasuna igartzen joango gara; neska babestuko duen amaren irudia emango digu une batetik aurrera Luziak. Luziaren pentsamenduetan gero eta leku handiagoa hartuko du Evak, eta momentu batean *Evatxo* ere deituko du. Eleberriaren amaieran, proiektuarekin amaitu eta gero, Suitzara lanera edo Evarekin

jarraitzeko erabakia hartu beharko du Luziak. Aipatzekoa da, maiz, amatasunaren diskurtsoa dakarrenean Luziak, ondoren Evaren gainean hasten dela hausnartzen edo hitz egiten.

Eva izenak, aldiz, berriz ere Genesira garamatza zuzenean, izan ere, honako eleberrian ere gai hori ukitzen du Oñederrak. Aldiz, oraingoan irakurketa desberdin bat eskaintzen da: Adanek hartu zuen agian sagarra.

Adani agindu baliote ezaguera lortuko zuela, ez zuen ziurrenik sagarra jango. Jainkoa bezalakoa izango zela esan zioten, ordea, sugeak eta emakumeak. Ezaguera lortzeagatik ez zuen gauza debekaturik egingo gizonak, ezin baita desiratu ezagutzen ez dena. Baina Jainkoa bezalakoa izate hori bai desiragarri (...) eta zigortu egin gintuen Jainkoak eta ez gara jainko. Adanen erruagatik, agian sekula izan ez zen Adanen batengatik erori egiten gara, eta hondatu, eta zikindu, ez gara betirako, bagoaz (13-14)

Hala izanik ere, emakume eta gizonezko harremanetan eleberrian erruaren sentimendua eta intseguritatea emakumearengan ikusten dugu, askatasun bila senarra uztea erabaki arte behintzat. Martinek beti babestu nahi izan zuela esaten du Luziak. Modu berean Luziari estuki lotzen omen zitzaion, berak haren beharra senti zezan. “Martinek oinen azpiko lurra kentzen zion Luziari, berarekin estuago lotzeko, bere beharra izan zezan (...) Luziak orduan ez zekien eta bere buruari egozten zion, beti bezala, errua. Ahulezia. Ezjakintasuna. Eznahikotasuna. Beti bezala. Beti bezala, errua” (19.-20)

Honi loturik, gizonezkoekin alderatuz emakumeak gizartean jasaten duen pisuaz ere hausnartzen du:

Kuriosoa da zenbat pentsatzen dugun emakumeok horrelako gauzez. Zenbat buelta. Nor garen. Nola gauden. Noiz arte dugun gazte itxura. Zer egin. Zer sentitu. Besteek zer dioten. Zergatik hori eta zertarako bestea (...) burua bestelako gauzetan erabili beharrean. Gizon batek horrelako joera duenean, idazle egiten da, edo filosofo, edo biak batera. Gu, berriz, hizketan murgiltzen gara (30-31).

Bere ama behin baino gehiagotan aipatzen du Luziak. Alfergura sortzen dio ama deitzeko beharrak eta beti luzatzen duen eginbeharra da. “Amaren etengabeko eskeak ito egiten du” (73). Luziak amarekin gatazkak ditu, besteak beste bere amak Luziak senarrarekin jarraitu eta haurrak izatea espero baitzuten eta bere ametsak eta ilusioak bete ez dituen ama dela ere kontatzen du Luziak. Hala ere, amatasunaren indarra irudikatzen du bere amaren eskuetan, berak amaren esku berak baititu.

Beste emakume batzuen gaineko hausnarketak egiten ditu ere Luziak: trenean doazen ama-alaba, emakume zahar bat, prostitutak... emakume desberdinen gaineko hausnarketak eskaintzen ditu, emakumeen existentziaz hitz eginez.

### **2.2.3. Luzia eta nazioa**

Eleberrian etengabeko mugimenduan dabil Luzia Donostiatik Madrilerako bidaiekin: “beti bilatzen du aitzakiaren bat kanpora joateko, hiritik, herritik, aberritik” (20). Protagonistari ez zaio gustatzen nonbaiten erroturik egote hori, eta mugimendua bilatzen du, mugimenduan sentitzen da eroso: “Mundu erdia zeharkatu zuena lagunekin eta bakarrik. Libre, inor baino libreago sentitu zena, libreago eta bakarrago. Behin eta berriz joan, eta behin eta berriz itzuli zena bere herrira eta bere jendearengana” (88).

Bestetik, Evak leherketa batean galdu ditu gurasoak. “Euskal gatazka” deitu izan dena dakar zeharka Oñederrak, izan ere, Evari gurasoak kotxe bateko bonba baten eztandan hil zaizkio. Eva, leherketaz gero hitz egiteko ezintasuna erakusten duen haurra dugu, eta mututasun edo isiltasun horrek, hain zuzen, euskal gatazkaren ulertezintasunarekin lotura izan dezake. Isiltasun hori euskal gatazkaren gainean hitz egiteko zailtasuna edo inpotenziaren adierazpidea izan daiteke.

Víctorrek ere, bere aldetik, gaztetan Donostiara joaten zela aipatzen du, eta honek ere adierazten du alfergura ematen diola Donostiako giro “hiperdonostiarrak” eta ETaren gaineko aldarriak.

### **2.2.4. Luzia eta hizkuntza**

Eleberrian hizkuntzaren gaia eta hitz egiteko gaitasuna nabarmenak dira. Egañak ere halaxe azpimarratzen du: “Nobelaren bertute nagusienak (hizkuntza, estiloa, ahots pertsonala, gai zenbaiten trataera obsesiboa)” direla (Egaña 2013).

Protagonista hizkuntzalaria dugu, hizkuntza ikertzen duena, hizkuntzaren gainean etengabeko hausnarketak dakarzkigun emakumea. Hizkuntzarekiko obsesioa eta esan nahi den hori behar bezala adierazteko adierazpide egokiak bilatzearen eta aurkitzearen gatazka nobelaren estilora ere iragaten dela esan daiteke. Horren aldean Eva dugu, leherketa baten ondorioz afasia bat duen eta hitz egiten ez duen neska txikia. Luziak bere hizketarako zailtasunak ikertuko ditu.

Oñederrak hizkuntza landua darabil eta kontzeptuak edota ideiak hizkuntza desberdinetan ematen ditu maiz eleberrian zehar: “Ezinbestean, inevitably,

inevitablemente” (13), hizkuntza aberastasuna dakarrena. Gainera, batzuetan Luziak ideiak gazteleraz datozkiolako bitxikeriaz hausnartzen du, eta baita Euskal Herrian bizi dugun eleaniztasun egoeraz ere:

“Todavía te quiero. Horrela atera zaio, erdaraz eta harekin ariko balitz bezala aurrez aurre hizketan. Auskalo zergatik, zeren Martinekin euskaraz egiten baitzuen berak. Gauza kurioa da burua. Pentsamendua eta hizkuntzarena ere gogora datorkio, eta inork ez dakiela horretaz gauza handirik, nahiz askok ziurtasun osoz hitz egiten duten (...) Zenbat gezur gure inguruan, eleaniztasuna eta horrelako gauzez, hizkuntza txikien babesaz (23).

Introspekziarako joera erakusten du Luziak, eta sentitzen dituen emozioak eta oroitzapenak azaltzeko hitz egokiak bilatzen ditu, sakonean sentitzen duena adierazteko sentimenduetatik oroitzapenera jauziak eginez.

Bestetik, Luziak maiz galderak adierazten ditu. Bere buruari egiten dizkion galderak dira, bizitzaren gaineko hausnarketa areagotzen dutenak. Modu honetan, zalantzaren errepresentazioa bera eleberriko ezinbesteko osagai bilakatzen da, existentzialak diren galderak etengabe planteatzen baititu. Horrela, denboraren igaroaz, adinaz, emakume izateaz, eta harremanen gaineko zalantzak adierazten ditu.

Amaitzeko, egoerak girotzeko darabiltzan musika erreferentziak aipatu behar dira. Etengabe dakartza kanta desberdinen esaldien edo mezuen aipamenak.

### **2.3. Teresa eta Luziaren arteko antzekotasunak**

Aztertu ditugun bi eleberrien arteko antzekotasunak ugariak dira, eta bitxiki, *EESEZ* nobelan aurki daitezkeen zenbait erreferentzia *Intemperies* lanean errepikatuko dira: Dire Straits-en “Romeo and Juliet” abestia, Fabrizio de André eta Dylan Thomasen aipuak, eta beste. Edonola ere, berezitasun hauez gain, bi nobelen arteko antzekotasun nagusiak bi protagonistei lerrotzen zaizkionak dira. Bere bizitza planteatzen duten adin ertaineko bi emakume dira, denboraren igaroa eta oinazea, bakardadea, gorputzaren aldaketa, amatasuna, gaztetasuna eta haurtzarora edota gizonetikiko urruntasuna bezalako gaiei buruzko etengabeko hausnarketak eskainiko dizkigutenak.

Bi emakume protagonista desberdin ditugu, eta biek istorio desberdin bat kontatzen digute. Hala ere, biek erakusten dute beren barnekotasuna eta bietan emakume hauen emozioak, zalantzak eta bakardadearen sentimendua gailentzen dira.

Kontamoldeari dagokionez, bi protagonistek darabiltzate memoria eta modus autobiografikoa. Hau da, bi protagonistengan beren barne-izaera eta barne-bilakaera gailentzen da, eta horren adierazpenerako beren bizitzari etengabeko erreposoa egiten diote. Hausnarketa eta emozioak ez ezik, memoriaren bidez gaztaro eta haurtzaroko oroitzapenetara ere jotzen dute, beren barne sentimendua indartzeko eta beren bizitzaren bilakaera eta etorkizunari begirako planteamendua egiteko. Hala ere, *EESEZ* eleberrian protagonistak bigarren pertsona baliatzen du irakurlearen konplizitate eta inplikazioa lortzeko, eta *Intemperies* eleberrian, aldiz, 3. pertsona baliatzen du narratzaileak, baina orojakilea izango da eta protagonistak uneoro sentitzen duenaren jakitun egingo du irakurlea. Beraz, protagonista bere osotasunean ezagutuko du narratzaileak bi eleberrietan.

Denborari dagokionez, bi eleberriek egitura berezia darabilte. *EESEZ* eleberrian jada amaiera aurreratzen digu lehen momentutik, eta eleberriaren bilakaera urtarok baldintzatuko dute. *Intemperies* eleberrian hiru zati bereizten dira; lehenengoan Luziak orainaldian bizi duena eskaintzen digu, bigarren atalean azken urtea kontatzen du eta amaieran berriz ere hasierako orainaldiko momentuari helduko dio. Dena den, bietan gailentzen dena denboraren igaroaren aurrean protagonistak sentitzen duen oinazea eta bere bizitzaren bilakaeraz hausnartzeko beharra da. Denboraren igaro horrek dramatismoa emakumeak beren barruko emozioak arakatzera eta nahi duten hori zer den pentsatu eta erabakitzen. Halaber, gai honi loturik heriotzaren gaiak ere pisua izango du bi eleberrietan. Heriotzaz hausnartzen dute protagonistek, batez ere Luziak.

Espazioari dagokionez, bi protagonistek mugimenduaren beharra sentitzen dutela ikusten dugu. Biak Donostiatik abiatuko dira; bata atzerrira eta bestea Madrilera joan-etorriak eginez etengabe. Biak beren barne-bidaia ahalbidetuko duen bidaiari helduko diote. Dena den, bada bietan garrantzitsua den espazio berdina: zoo-a. Zooan hartuko du Teresak bere bizitzari norabide berria emateko alde egiteko erabakia eta zooan Luziarekin egonda esango du hitz egiteko ezintasuna duen Evak *felino* tankerako zerbait.

Bestetik, amatasunaren gaiari bi eleberriek indartsu heltzen diote. Adin ertaineko bi emakume direla aipatu dugu, Teresa Luzia baino hamabost bat urte gazteago. Teresak ama izateko edo ez izateko erabakia hartzeko momentuan ikusten du bere burua eta askatasun handiagoa izateko nahiagatik uko egingo dio. Luziak jada erabaki bera hartu

zuen duela zenbait urte, eta *EESEZ* eleberrian bezala, antisorgailuak edo pilulak aipatzen ditu eta plazer hartzeko sexua eta amatasuna alderatzen. Horri loturik, aipatzekoa da bi emakumeek gorputzasunaren irudia amatasunarekin ez ezik desira eta sexuarekin ere lotzen dutela, eta biek kontaktzen dute beren lehen elkartzeko sexuala, biek hitz egiten dute barruko arropaz, beren gorputzaz ... Haatik, aldaketa nagusi bat dakar Luziak; izan ere, amatasunari uko egin arren, Eva ezagutuko du eta goxotasun berezia hartzen joango zaio, amarik ez duen haur horren babesle sentituko da, eta ama izatearen nolabaiteko sentimendua sortzen hasiko zaio. Modu berean, biek amatasunaren gaia Genesiari eta gorputzaren aldaketari helduz adieraziko dute. Bietan Genesiaren pasartea dakar Oñederrak, emakumea errudun eta gizonekiko bakardadean sentitzera daramana. Aitzitik, bigarren eleberrian irakurketa hein batean desberdina da eta gizona “erruduna” izan ote zen planteatzen du autoreak. Gorputzari dagokionez, adinak dakarren gorputz aldaketa fisikoa eta biologikoaren berri ematen dute bi emakumeek.

Nazioaren gaiari begira, biek Donostiatik ateratzeko beharra sumatzen dute bere bilakaera edo identitatea eraikitzeko. Halaber, nazioaren gaiari loturik, aurretik aipatu den bezala “Euskal gatazka” iradokitzen da *Intemperiesen* leherketaren aipamenarekin, esplizituki leherketaren eragilea ETA denik aipatzen ez badu ere. Gainera, arestian esan bezala, Evaren mututasunarekin harreman daiteke, gatazkaren inguruan hitz egiteko zailtasunari lotuta; irakurleari bere interpretazioa egin dezan airean uzten den auzia dela esan daiteke.

Hizkuntzaren erabilera eta kontrola bietan azpimarratzeko gaia dugu. Bi protagonistak hizkuntzari loturiko lanbideak dituzte, eta biek aipatzen dute haurtzaroan hizkuntzarekin hurbiltasuna izan zuten momenturen bat. Eleaniztasunaren gaia ikus dezakegu bi eleberrietan, hizkuntza desberdinak darabiltzalako sinonimia garatzeko edota aipuak egiteko. Bi eleberrietako narratzaileei hizkuntzarekin jolas egitea gustatzen zaiela ikus daiteke. Are gehiago, Luzia hizkuntzalaria da, hizkuntzarekin lotura estua duena, eta adierazi nahi dena egoki adierazteko nahiaren obsesioa dugu hain zuzen ere nobelaren estilo. Horren aldean, gainera, Eva dugu, hitz egiten ez duen neskatua. Oso trebea agertzen da Oñederra hizkuntzaren erabilerarekin, esan bezala, bi emakumeren barnekotasuna eta hausnarketak dira bi eleberrietan gailentzen direnak, eta gaitasun handia erakusten du autoreak sentipen horien adierazpenerako. Hizkuntzari loturik, bi eleberrietan sententzioak deskribatzeko gaitasun handia erakusten du Oñederrak, musikari loturiko doinu eta letra esanguratsuak ekarriz edota usaimena bezalako



zentzumeneren nolakotasuna indartsu adieraziz gehienbat. Horrek, sentsazio zein sentimenduen edota egoeren adierazpenaren indarra areagotzea dakar.

Azkenik, bi protagonisten sentimendu ugari nabarmendu baditugu ere, biek sentitzen duten bakardadea edo hutsaltasunaren sentimendua esanguratsua da. Biek bakardadeari nolabaiteko beldurra diote baina biek bere kabuz beren zorientasuna eraikitzekeo hautua hartzen dute. Biak egon dira denbora luzez gizonezko batekin eta haiekiko inkomunikazioa eta urruntasuna haziz joan da, eta bakarrik sentitzen joan dira. Bakardade horren eragile edo sortzaileen artean bizitzarekiko sentitzen duten asperdura ere nabarmentzen da. Egunerokotasunak ito dituela dirudi, eta bizitza pasioz bizitzeko grina adierazten dute, eta horretarako bakarrik ekiten diote beren bideari. Sentimendu hau oso modu sakonean ematen du Teresak alde egiteko hautua egiten duenean *EESEZ* eleberriaren amaieran:

Zure gorputzaren gertabidean zehar, zure bizitzaren hasieratik akabura bitartean. (...) Norberaren bizitza (...) Zoriona. Norberak nahi duena egitea, egitea lortzea. Horretarako inportantea omen da zer nahi den jakitea (...) Zer nahi duzu zuk hemendik aurrera (...) Zoriona ezin da eman. Nor bere zorionaren erantzule da. Kalterik ez egin, minik ez eman. Ihes egin. Ezkutatu. Ihesak, bizitzen segitzeko behar diren arnasaldiak, norberaren edo besteren morrontzaren mezulari pozoitsuak.” (183).

### 3. Ondorioak

Bi eleberrien azterketa kontuan harturik eta partekatzen dituzten aztergaiei erreparatuz, eleberrietako emakume protagonistak, Lasartek bere tesian argudiatuiko emakume berriaren barruan sar daitezkeela ondorioztatzen da.

Bi eleberrietan pertsonaia protagonista femeninoek hartu dute indarra eta gizonezkoak bigarren maila batean topatzen ditugu. Gainera, Teresak eta Luziak modus autobiografikoko kontamoldea eta memoria darabiltzate beren bizitzari buruzko solasaldia egiteko eleberri osoan zehar, eta bere barrualdeko emozioak dira indarrez gailentzen direnak. Denboraren igaroa edo adina, emakumezkoen gorputzaz eta kondizioaz, bakardadeaz, eta amatasunaz hausnartzen dute, ikuskera berriak proposatuz eta biek amatasunari uko eginez. Beste ikuskera berri bat hartzen dute emakume protagonista hauek, Lasartek azaltzen duen bezala:

Emakume berri honek literaturak eman dion ohiko rolari aurre egin dio: maitasun erromantikoari, ezarritako bizi rolei, emazte izateari, seme-alaben esaneko guraso izateari eta abarri. Jendarteak ezarritako rolak eta balioak baztertu, eta hausnartu ondoren, ahots propioz bizitza propioa proposatu du (Lasarte 2011: 265).

Gainera, bietan Genesiaren berrirakurketa oso nabarmena da. Genesian Evari eman zaion irudia iraultzen da bi eleberri hauetan. Lehenengoan, Teresak gizonekiko urruntasuna adierazteko darabil, eta emakumeak sentitzen duen erruaren eragile modura ere aurkezten du. Luziak, irakurketa berri bat dakar, planteatuz, beharbada Adan izan zela sagarra heldu zuena, eta ez Evak.

Emakume berri hauen identitatearen jaiotza bost modu desberdinetan eraikitzen dela ondorioztatu du Lasartek: krisialditik, trasgresiotik, berrirakurketatik, dekonstrukziotik eta periferiatik jaiotzen diren emakumeak.

*EESEZ* eleberrian emakume berriaren jaiotza berrirakurketan kokatzen du Lasartek, Genesiaren berrirakurketa dakarrelako Oñederrak Teresaren bidez; protagonistak Genesitik urrun ikusten du bere burua eta gorputza, eta amatasunari ezezkoa ematen dio. *Intemperies*-en ere Luziaren jaiotza berrirakurketan sar daiteke, Genesiaren irakurketa desberdin bat dakarrelako aurretik esan dugun moduan, Evaren tradiziozko iruditik aldentzen dena.

Halaber, identitate horien jaiotza krisialdiak eragina dela ondoriozta dezakegu, batez ere Teresaren kasuan. Honek bakardade eta hutsaltasunaren aurrean bere bizitza birplanteatzen du osorik. Bere bizitzari buruz hausnartzen hastean sentitzen duen bakardadeak eragiten du krisialdia, azkenean, bakarrik beste bizimodu berri bat ekitera daramana. Luziak ere kanpoan lanbide berri bat hartzea hautatzen du, bere bizitzan sentitzen zuen zerbaiten faltaren aurrean edo nolabaiteko zentzuaren bila.

Bi nobeletan, beraz bi emakumeren barnekotasuna biluzten da. Bi emakume hauek adin ertainekoak dira eta gizartean ohiko den bizimoduaren gaineko kontzientzia berria erakusten dute, horri uko eginez. Hau da, ez dute familia tradizionala sortzeko asmorik, baizik eta lanbideari heldu, amatasunari uko egin eta haiek bakarrik zoriontsu egingo dituen bizimoduaren bila abiatzen dira. Emakumeak gizartean jasaten duen pisua ikusten da eleberrian. Bere itxurarekiko eroso sentitzeko zailtasunak eta ardua, amatasunaren erabakia, erru sentimendua... Gizonezkoekin erkatuz, gizarteak emakumea nola baldintzatzen duen ere azpimarratzen da bi nobeletan, sarritan emakumea errudun sentiarazteraino. Aitzitik, bi emakume hauek beren bizitza haurtzarotik erreparatu ondoren, emakume bezala bizi dituzten zenbait egoera edo gertaera hausnartu ondoren, emozio desberdinak sentitu ondoren, kontzientzia hartuko dute. Kontzientzia horrek gizarteak inposatu edo eredu jarririko bizimodu horri uko egitera eta gizarteko lotura horietatik askeago eta beren zoriona bilatzera eramango ditu, emakume berriaren irudia bilakaera horren ondorio bihurtuz. Bi emakumeek beren ama ere aipatzen dute eta biek nolabaiteko alfergura sentitzen dute haiekiko. Emakumeen arteko genealogiaz amaitzeko, amonaren irudia genuke Teresaren kasuan, zeinak indarra eta kemena ematen dion.

Bi eleberrietan emakume protagonistaren irudi berria ematen dela esan daiteke beraz. Halere, pentsa daiteke lehenengo eleberriko protagonistak, Teresak, are nabarmenago hausten duela aurreko emakume protagonisten irudia, izan ere, “iraultzaileagoa” da. Hau da, Teresak bere aurreko bizitzaren gaineko hausnarketa sakona egin ostean guztiz hausten du bizimodu horrekin eta kontzientzia berri bat hartuz, horri jarraiki bizimodu desberdin baten bila abiatzen dela pentsa daiteke. Aldiz, Luziak ere emakume berri baten irudia azaltzen duen arren, ez da horren iraultzaile agertzen, ez du bere bizimoduarekin guztiz apurtzen edo iraultzen Teresak bezala.

Amaitzeko, emozioen agerpena garrantzitsuena dela argi utzi dugularik, bi eleberriak existentzialak edo psikologikotzat har daitezke, batez ere bizitzari buruko hausnarketa indartsuari erreparatuz: “Bizitzaren erdia pasatzen dugu jakin gabe. Beste erdia, ausartu gabe” (24) . Hori horrela, *EESEZ* eleberrian ere Teresari ziurra den gauza bakarra heriotza iruditzen zaio, gainerako guztia kuestionatzen duen bitartean.

#### 4. Bibliografia

ALDEKOA, I. (2010), *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.

ALVAREZ, A. (2005), “Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten” in *Jakin* 148, 37-75. Sarean: <<https://www.jakin.eus/show/dd3f4a4f53c87003e61d60c0c55401d4dbec0a0a>> [2018/05/11]

ALVAREZ, A. & LASARTE, G. (2012), *Gorputza eta generoa. Euskal kulturaren eta literaturan*, Bilbo: UPV-EHU.

Sarean: <<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/UHWEB127185.pdf>> [2018/05/03]

AZURMENDI, N. (2014), “Axola al dio kopuruak?” in LASARTE, G. & MUÑOZ, J., *Genero ñabardurak lerro artean, Hegats* 52, 27-44.

Sarean: <[http://www.idazleak.eus/fitxategiak/ckfinder/files/Hegats\\_52.pdf](http://www.idazleak.eus/fitxategiak/ckfinder/files/Hegats_52.pdf)> [2018/05/24]

EGAÑA, I. (2013) “Bizitza ikergai”, *Deia*, 2013-05-18.

Sarean: <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5839>> [2018/05/10]

ESTEBAN, M.L. (2004), *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

FREIXAS, L. (2000), *Literatura y mujeres*, Bartzelona: Destino.

GABILONDO, J. (2006), *Nazioaren hondarrak*, Bilbo: UPV-EHU.

RETOLAZA, I. (2007), “Lourdes Oñederra: *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999)” in KORTAZAR, J. (zuz.), *Egungo euskal eleberraren historia*, Bilbo: UPV-EHU, 255-265.

LASARTE, G. (2012), *Feminist Agenda. Euskal narratiba garaikidean*, Bilbo: UPV-EHU.

Sarean: <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema\\_Lasarte\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema_Lasarte_TESIA.pdf)> [2018/04/06]

LASARTE, G. (2010), *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarria eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*, UPV-EHU.

Sarean: <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema\\_Lasarte\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema_Lasarte_TESIA.pdf)> [2018/05/09]

MINTEGI, L. (1987), “Emakume-literatura: zer da eta zertan da” in *Jakin* 45, 7-25.

Sarean: <<https://www.jakin.eus/show/b99be6ec06f8c7b0cf2e7bace816d2f4b9c06830>> [2018/04/29]

OLAZIREGI, M.J. (1999), “Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako literatura” in *Oihenart* 17, 1-75.

Sarean: <<http://hedatuz.euskomedia.org/2464/1/17003075.pdf>> [2018/05/18]

OLAZIREGI, M.J. (2000) “Zer esan ote zion sugeak emakumeari?”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-03-25. Sarean: <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=2800>> [2018/05/03]

OLAZIREGI, M.J. (2002), *Euskal eleberriaren historia*, Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.

OÑEDERRA, M. L. (2000), *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Donostia: Erein.

OÑEDERRA, M. L. (2013), *Intemperies. Babes bila*, Donostia: Erein.

URKIZA, A. (2006), *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania.